



ZER DA GEOCACHING-A?

Joko honen helburua da ezkutatutako altxorak (*geocache*, *cache*) topatzea, eta altxorak ezkutatzea, beste batzuek topa ditzaten. Hasieran, normalena izaten da altxorren bila ibiltzea, eta, horretan trebatu eta gero, nork bere proiektua diseinatu eta altxorak ezkutatzen hastea.

Halaber, aire zabalean egoteko eta gozatzeko aitzakia da; izan ere, joko honek teknologia (GPSa, telefono mugikorra erabiltzea) eta abentura uztartzen ditu. Jokatzeko aukera ematen dio edozein adinetako jendeari, lagunartean, familian, bakarka, inguruko txokoak ezagutzeko irteeretan, atzerrian turismoa egitean, mendi-ibilaldietan, oinez, bizikletaz...

Kontinente guztietan daude ezkutatutako altxorak, Antartikatik Ipar Ameriketaraino. Baliteke baten bat egotea zure auzoko parkean, bidezidor luze baten amaieran, ur azpian edo zure herriko kale batean.

ALTXORRAK! NOLAKOAK DIRA?

Funtsean edukiontziak dira, barruan sartzen dira balio gutxiko objektuak, baita topatzen duenaren izena apuntatzeko koadernotxo bat edo orri bat ere (*erregistro-liburua* edo *logbook*); horrela, erregistratuta (*log*) geratuko da zeintzuek topatu duten. Edukiontzari eta barruan duen guztiari *cache* edo *geocache* deitzen zaio mintzaira teknikoan, euskaraz “altxorra” esatea proposatzen dugu.

Altxor bat edozein gauza izan daiteke, plastikozko zip poltsa bat edo tupperware bat; eta tamainari dagokionez, normalena izaten denez koadernotxo bat edo orri bat edukitzea barruan, egin tamainaren kalkulua. Bestalde, kontuan hartu edukiontziak klimatologiari eusteko gai izan behar direla, barrukoa garbi eta lehor mantentze dadin. Tamainarik ohikoenak: nanoa, mikroa (argazki-karrete baten tamainakoa), txikia (litro 1eko edukiontzia), ertaina (2-5 litrokoa) eta handia (20 litroko bidoia).

NOLA JOKATZEN DA?

Jokalaria batek altxor bat ezkutatzen du munduko edozein herrialdeko lekuren batean —mendi, hiri, parke, kale bateko farola batean, harri baten azpian, zuhaitz baten ondoan...— GPS gailu baten bidez ezkutalekuaren koordenatu geografikoak hartzen ditu, eta, ondoren, altxor horren existentzia eta kokapena partekatzen ditu linean, www.geocaching.com webgunearen bidez.

Webgune horretan altxorraren koordenatuak eta deskribapena argitaratzen dira; hala, jolasteko asmoa dutenek jakingo dute non dagoen ezkutatuta altxor bat etxetik gertu, egunpasa edo oporretan joango diren toki horretan, edo atzerriko herrialde bateko herri zein hiri batean. Beraz, bertan daudenean GPS gailu bat edo GPSa duen telefono mugikor bat erabiliz, bilaketa egin ahal izango dute. Bestalde, jokatu ahal izateko aplikazioa instalatu behar da (Android zein iOS).



Altxorra aurkitzean, koadernotxoan sinatu behar da, eta nahi izanez gero, altxorraren objektu bat edo batzuk trukatu. Horri dagokionez, errespetatu behar da arau inportante bat: zerbait hartuz gero, balio bereko edo handiagoko zerbait utzi beharko da, aurkitzen duten hurrengo lagunek objektu gehiago trukatu ahal izateko (aurrerago informazio gehiago emango dugu honetaz). Bestalde, altxorra aurkitutako moduan utzi behar da. Azkenik, www.geocaching.com webgunean erregistratu eta partekatu altxor hori bilatzen eta topatzen izandako esperientzia.

JOKOAREN ZAILTASUN MAILA

Guztiek ez dute zailtasun maila bera. Zailtasuna adierazten da kontuan hartuta altxorra oso kamuflatuta dagoen, asmatzen zaila den misterio bat den edo ezkutatuta dagoen lekuraino heltzeko baliabide bereziak behar diren (eskailera, soka, urpekaritza-ekipoa, eta abar).

JOKO MOTAK

Kasu batzuetan altxorra topatzeko bidea zuzeneko bilaketa da, beste kasu batzuetan enigma bat ebatzi behar da eta beste batzuk topatzeko 5 kilometroko ibilbidea egin behar da... Denetarik dago! Hona hemen adibide batzuk:

- **OHIKOA:** altxorra fitxan adierazitako koordinatuetan dago.
- **ASKOTARIKOA (MULTI):** fitxaren koordinatuek adierazten dute non hasi, baina bertan ez dago altxorra. Pistak emango dizkiguten gauzen bila joan behar dugu, altxorrera iritsi arte.
- **PUZZLEA:** Edukiontzia ez da adierazitako koordinatuetan egoten. Fitxak erroka edo enigma bat planteatzen du; asmatutakoan azken koordinatuak lortuko ditugu.
- **NORA NOA NI (WHERIGO):** Bideojoko modukoa da. Programa bat instalatu behar dugu gure telefonoan eta horrek gidatuko gaitu ibilbidean zehar.
- **LURRA DA ALTXORRA (EARTHCACHE):** heztea helburu, Lurraren zientziei eta geologiari buruzko jokoak dira. Ez dago edukiontzirik. Erregistratzeko, hasierako puntura joan eta ikertu egin beharko dugu galdera batzuk erantzun ahal izateko.
- **JARDUNALDIA:** altxor-bilatzaileen (*geocacher*) bilera bat da; helburua da hitz egitea, xomorro bidaiazaleak (*travel bugs*) trukatzea, beste altxor-bilatzaile batzuk ezagutzea... Gainerako altxorrek erregistratzen diren moduan erregistratzen dira.
- **ALTXORRA BAI, ZABORRIK EZ (CITO Cache In Trash Out):** helburua da gune edo parke bat garbitzea, Geocachingaren altxor berdea, alegia. Jardunaldiak erregistratzen diren moduan erregistratzen dira.

ARRASTOARI SEGITZEKO MODUKO OBJEKTUAK (TRACKABLES) ETA TRUKATZEKOAK

Altxorraren barruan topatuko dituzun objektuak dira; hasiera batean pentsatuko duzu denak berdinak direla, baina ez da hala. Izan ere, arrastoari segitzekoak ezin ditugu



guretzat hartu, bakarrik eraman ditzakegu toki batetik bestera. Hona hemen trukatzeko eta arrastoari segitzeko objektuen arteko aldeak:

Arrastoari segitzeko moduko objektuak

- Grabatutako kode bat dute, hau da, lokalizatzeko zenbaki bat. Horren bidez jakingo dugu, batetik, objektua norena den eta zein den bere misioa; eta bestetik, aurkitzen duenak non hartu duen eta non utzi duen.
- Altxorraren orrialdean, eskuinean, topatuko dugu altxorraren barruko objektuen zerrenda.
- Altxor bat balitz erregistratzen dira. Adierazi ahal dugu zer egin dugun: ikusi, hartu edo beste altxor batera eraman eta han utzi.
- Normalean misio bat izaten dute, beraz, irakurri behar dugu jabeak zer nahi duen guk egitea objektu horrekin edo horiekin.
- *Geocaching*-eko webgunean, arrastoari segitzeko moduko objektuak egindako kilometroak ikus ditzakezu eta mapa batean irudikatu.

Trukatzekoak

- Elkartrukea egin daiteke, hau da, balio bereko zerbait utzi.
- Altxorra topatu dugula adieraztean esan dezakegu zerbait hartu edo utzi dugula.
- Trukatzeko objektuen artean hona hemen oso bereziak diren bi:
 - Xomorro bidaiazalea (*Travel Bug*): xomorro baten irudia duen txapa bat da. Bere egiteko nagusia da bidaiatzea leku batetik bestera.
 - GeoTxanpona (*GeoCoin*): altxor-bilatzaile batek (*Geocacher*) sortutako txanpon berezi bat da. Bisita-txartel bat bezalakoa da. GeoTxanponen egitekoa bidaiatzea izan daiteke; beste aukera bat da nork bere GeoTxanponen bilduma egitea.

ALTXOR BAT EZKUTATZEA

Arestian esan dugun moduan altxorrek bilatzetik ezkutatzera pasa gaitzeko. Horrexegatik inportantea da besteen altxorrek errespetatzea. Altxor bat ezkutatzeko asmoa baduzu, ideia ona izan daiteke aukeratzea zure ustez erakusteko modukoa den lekuren bat edo kontatzea merezi duen istorioren bat. Kontuan hartu altxorra ezkutatu duzun inguruko 161 metrora ez dela egon behar beste altxor bat. Zure altxorra ezkutatuakoa, leku horren koordenatuak hartu behar dituzu, altxorraren orria sortu eta, azkenik, alta eman.

Ikuskatzaile boluntario batek aztertuko du zure altxorra. Lagun hori ez da zure altxorra ikustera joango, baizik eta arauak betetzen dituela egiaztatuko du eta, dena ondo badago, argitaratu egingo du. Gogoratu ikuskatzailea altxorrek argitaratzen laguntzeko dagoela, elkarlanean aritu berarekin, ez zaildu bere egitekoa.



Zuk gordetako altxorra aurkitzen duten erabiltzaileen erregistroak irakurtzeak poz handia ematen du; horrexegatik, saia zaitez idazten dituzun iruzkinak zuri utzitako mezuen tankerakoak izan daitezten.

GEOCACHING-EAN ARITZEKO OINARRIZKOA

Irten baino lehen

- Deskargatu eta instalatu aplikazioa (Android zein iOS). Sortu kontu bat. Ireki aplikazioa eta aukeratu altxor bat, irakurri deskribapena: zailtasun maila (1/1 errazena da eta 5/5 zailena), mota... Errealista izan, zailtasun maila eta zure gaitasuna eta trebezia parekoak izan behar dira.
- Altxorraren deskribapenean jarri arreta berezia pistetan. Inoiz ez dago sobera mapa bat eramatea.
- Altxorra dagoen gunean oztopoak egonez gero, baliteke topatzeko denbora gehiago behar izatea; beraz, kalkulatu bilatzen emango duzun denbora.
- Ikasi zure GPSa ondo erabiltzen eta pila gehiago eraman.
- Eraman ura, janaria eta, badaezpada, ordezko arropa.
- Gonbidatu lagunak eta senideak parte hartzera... Oso atsegina eta dibertigarria izan daiteke.
- Esaiozu zurekin joango ez den bati nora joango zaren.

Bidean

- Erabili autoa edo bide baterako sarrera erreferentzia puntu bezala (*waypoint*); hala, ez duzu itzultzeko arazorik izango.
- Altxorrera heltzeko 16 metro baino gutxiago dagoenean, begiak erabili GPSa erabili beharrean.
- Gogoan izan altxorrak beti begi-bistan daudela, inoiz ez lurperaturik, baina gehienetan oso-oso ondo kamuflatuta.
- Errespetatu ingurumena; praktikatu Altxorra bai, zaborrik ez (*CITO Cache In Trash Out*).

Altxorra topatu ondoren

- Sinatu altxorraren koadernotxoan edo orrian.
- Utzi altxorra ezkutatuta topatu duzun moduan.
- Partekatu bilaketan izandako abenturak, istorioak eta argazkiak Geocaching.com-en.

GEOCACHING-AREN BESTE ARAU BATZUK

- Errespetatu tokian tokiko arauak eta seinaleak.
- Altxorraren edukia egokia eta adeitsua izan behar da jokalaria guztientzat. Bestalde, ez jarri altxor batean janaria, lehegailuak, aiztoak edo alkohola bezalako gaiak.



- Arestian esan dugun moduan, zerbait hartzen baduzu, utzi bere orde z balio bereko edo handiagoko zerbait.
- Altxorak ez dira inoiz lurperatuta egoten eta ez dira utzi behar arrisku edo kezka sor dezakeen kokaleku batean.
- Topatutakoaren gaineko zerbait idatzi eta sinatu altxorren koadernotxoan.
- Idatzi altxorren orrialdean zure esperientziari buruzko iruzkinak.